

Erasmus LH bekak sortu ditu Vital Fundazioak, datorren ikasturtean enpresetan praktikak egiteko

- Araban erroldatuta dauden eta lurraldeko LHko zentroetan ikasten ari diren ikasleentzat dira laguntzak. Ikasle horiek goi-mailako graduiko ikasleentzako Erasmus mugikortasun programan onartuta egon behar dute
- Laguntzen zenbatekoa 500 €-koa da, ordaindu gabeko praktiketako hiru hilabeteko aldirako

2024-2025 ikasturtean enpresetan praktikak egiteko Erasmus LH Beken deialdia atera du lehen aldiz **Vital Fundazioak**. Laguntzak Arabako Lurralde Historikoan erroldatutako ikasleentzat dira. Bertako Lanbide Heziketako ikastetxeetan matrikulatuta egon behar dute eta goi-mailako ikasleentzako Erasmus mugikortasun programan onartuta ere bai. Beka horietako bat eskatzeko epea 2025eko abenduaren 16tik urtarrilaren 17ra egongo da zabalik, eta erakundearen www.fundacionvital.eus webgunearen bidez gauza daiteke.

Laguntzaren zenbatekoa **500 €-koa** da enpresetan ordaindu gabeko **praktiketako hiru hilabeteko epealdirako**, eta ez dira balizko luzapenak onartuko. Era berean, pertsona bakoitzeko laguntza bakarra emango da ikasle-ibilbide osoan, truke-programa guztietarako, eta eskatutako beken zenbatekoak Vital Fundazioak programa horretarako jarritako aurrekontua gainditzen badu, baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean hainbanatuko da aurrekontu hori.

Bekak eskuratu ahal izateko, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen Araban erroldatuta egoteaz gain eta Lanbide Heziketako goi-mailako titulu ofiziala lortzeko ikasketak Lurraldean egiten aritzeaz gain, beharrezkoa da ikastetxeak ofizialki hautatu izana 2024/2025 ikasturtean Europar Batasuneko herrialde kideetan mugikortasunari buruzko KA131 Erasmus + Programan parte hartzeko, baita Kutxabanekin lotura baldintza jakin batzuk mantentzea ere, oinarriek zehazten dutenaren arabera.

Laguntza eskatzeko, interesa duten ikasleek eskabide-orria bete eta bidali beharko dute www.fundacionvital.eus helbidearen bidez, eta eskatutako dokumentazioa bidali beharko dute 2025eko abenduaren 16tik urtarrilaren 17ra bitartean. Onuradunen zerrendak urtarrilaren amaieran argitaratuko dira.

